

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO UDALA

Lizitazioa, Las Rasas erkidegoaren titularitateko zur aprobetxamendua esleitzeko

Bat etorri alkateak 2016ko uztailaren 27an onartutako 115 zenbakiko ebazpenarekin, iragarki honen bidez egiten da deialdia zur aprobetxamenduko lote bat esleitzeko lizitaziorako; zur aprobetxamendu hori onura publikoko mendi katalogatu 188 zenbakidunean dago. Hona hemen lizitazioaren datuak:

1. Erakunde esleitzaila. Datu orokorrak eta argibideak eskuratzeko datuak:

a) Erakundea: Urizaharreko Udala.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

1. Bulegoa: Urizaharreko Udala.

2. Helbidea: Fray Jacinto Martínez plaza, 2.

3. Herria eta posta kodea: 01212 Urizaharra.

4. Telefonoa: 945 367004.

5. Faxa: 945 367073.

6. Posta elektronikoa: arraia@ayto.araba.eus

7. Kontratzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.penacerrada-urizaharra.com

8. Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: 2016ko irailaren 15a.

II. Kontratuaren xedea:

a) Mota: salerosketa.

b) Objektuaren azalpena: 188 zenbakidun OPMan zur aprobetxamendua besterentzea, hemen behean ageri den taulan zehaztua.

TITULARRA	DERMIOA 188. Z. OPM	ESPEZIEA	KUBIKAZIOA		MOZTEKO MODUA	PEFC ZIURT
			ESTEREOA			
Las Rasas Erkidegoa	Las Rasas	PAGOA PAGOA	1.350,00 150,00	(zura motzean) (zura luzean)	1. bakanketa <u>Azken emaitzen arabera</u>	Ez

c) Lotetan banatzea eta kopurua: ez.

III. Izapidetza eta prozedura:

a) Izapidetza: arrunta

b) Prozedura: irekia, eta esleitzeko irizpide bakarra, eskaintza ekonomikorik onena.

IV. Kontratuaren zenbatekoa:

a) Zenbatekoa, guztira: 4.545,00 euro, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza araubide bereziko ehuneko 12ko konpentsazioa aparte.

V. Kontratastaren berariazko betekizunak.

a) Ekonomia eta finantza kaudimena eta kaudimen tekniko-profesionala: administrazio klausula berezien pleguko bederatzigarren klausularen d) idatz zatian jasotzen dena.

VI. Eskaintzak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko epea: 2016ko irailaren 15a.

b) Eskaintzak aurkezteko lekua:

1. Bulegoa: Urizaharreko Udala.

2. Helbidea: Fray Jacinto Martínez plaza, 2.

3. Herria eta posta kodea: 01212 Urizaharra.

VII. Eskaintzak irekitzea.

a) Helbidea: Urizaharreko Udala.

b) Herria eta posta kodea: 01212 Urizaharra.

c) Eguna eta ordua: 2016ko irailaren 28an, 10:30ean.

Urizaharra, 2016ko uztailaren 28a

Alkatea

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO